LAN TALDEAREN BILERA

DATA: **2026-10-05** **BILERA ZENBAKIA: 10**

ORDUA ETA LEKUA: 17:00 Itsasondoko udala

PARTEHARTZAILEAK: Elena (Udal zinegotzia), Bihotza (gizarte langilea), Amaia (gizarte langile berria) eta Maider.

LANDUTAKO GAI ORDENA

Guraso eskola:

Aurretik adostu bezela Legorretako gizarte langilearekin batera formakuntzarekin aurrera egingo dugu; gizarte langileak koordinatuko dira. Izen emateak Legorretako langileak kudeatuko ditu eta Itsasondon eskolak zabalduko du mezua.

Formakuntza saioak 17:30-19:00

HH urriak 14/ abenduak

LH otsailak 4/ otsailak 25

DBH apirilak 15/ apirilak 22

Ordainketa biztanlegoaren arabera izatea adostu dugu; beraz, hiru bloke hauetatik bat Itsasondori dagokio eta, era berean, 2 saio Itsasondon izango dira.

Mediku etxea:

Bi pisuak esleitu dira, lehen pisua okupatuta dago eta bigarrenak laster du mudantza.

Aurrekontua:

2026ko aurrekontua eskuartean dugula 2027rako zirriborroa prestatu dugu. Eskuhartze psikosozialaren puntua argitzea Bihotzaren esku geratu da.

Bestelakoak:

-Festatako balorazioan kontutan hartzekoak: otorduetan txerrikirik ez jartzea

proposatuko diogu festa batzordeari eta ongizatetik kudeatzen ditugun txartelei buruzko gogoeta egitea baloratu dugu hurrengo urteari begira.

-Aurten, momentuz, ez da atera euskera ikasteko talderik eta Legorretara bideratu dira Itsasondoko ikasleak.

-Emakume arrazializatu eta migratuen taldea martxan da eta hilean bi saio aurreikusten dira.

-AZAROA:

*bigarren eskuko baserritar arropa

*jostailu bilketa

*azaroak 25

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Aurrekontua		Bihotza

HURRENGO BILERA

Hurrengo bilera: azaroaren 2an, 17:30etan, udaletxeko bigarren solairuko bilera gelan.